

**ERRUTINA: BAIMENAK (TOKIAK)**

Ikasmaila: LH3-LH4

<p><b>Gaia</b></p>	<p><b>Baimenak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Tokiak: komuna, patioa, liburutegia...</li> </ol>
<p><b>Helburu linguistikoa</b></p>	<p><b>Esaldiak ekoiztea</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Joan naiteke- joan gaitezke- joan daiteke – joan daitezke- joan zaitezke - joan zaitezke</li> <li>2. Ahalerako formak aditz ezberdinekin erabili: jeitsi, geratu, apuntatu, etorri, ondo eseri, altxatu ...</li> <li>3. Ezezko formak: ezin zaitezke joan, ezin zaitezke joan...</li> <li>4. Hiztegia: komuna, liburutegia, patioa, jangela, frontoia, futbol zelaia, eskolako sarrera , zuzendaritza, izenburua, arduraduna, Latxartegiko parkea, sukaldea, ondoko gela, 1. maila, bideo gela, irakasle/musika/informatika/plastika gela, laborategia, aretoa, ...</li> <li>5. Esapideak: bai noski, bai horixe, arazorik ez..., ezta pentsatu ere, ezinezkoa da...</li> </ol>
<p><b>Konplexutasunaren garapena</b></p>	<p><b>1. Motibazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arbelean idatzi erabiltzen dituzten era ezberdin guztiak, eta ondoren zuzenak direnak aukeratu. Hauek izango dira landuko direnak: joan naiteke- joan zaitezke.</li> <li>- Jolasa: Bakoitzari paper batean idatzita leku ezberdin bat eman: komuna, liburutegia, zuzendaritza, sukaldea, ondoko gela, 1. maila, bideo gela, irakasle gela, frontoia, musika gela, plastika gela, laborategia, aretoa, jangela, informatika gela, Beatrizen gelan, futbol zelaia, eskolako sarrera, patioa... Beraiek baimena eskatu behar diote erdian jarriko den pertsonari (<i>Baimenator</i> izendatuko dugu). Asteazkera zehar landuko da egunero 8-10 minututan talde txikitan denak <i>Baimenator</i> papera betetzeko aukera izateko.</li> <li>- Landuko ditugun esaldiak: “..... joan naiteke? Bai, .... joan zaitezke / ez, ezin zaitezke.... joan” (Egoera bera pluralean)</li> <li>- Gelan horma-irudia zintzilikatu eta bokadiloaren barruan “.... joan naiteke?” esaldia idatzi. Ikasitakoa jasota geratzeko, esaldi berriak ikasi ahala, bokadilo berriak gehitu (“joan zaitezke, joan daitezke...”).</li> </ul>

## 2. Egoerak emanda ikasitakoa finkatu

- Egoera emanda, talde txikietan antzestu. Partaide bakoitzak singularrean ikasitako esaldiak erabiltzeko aukera izango du, eta ondoren, taldeka pluralean.

Emango diren egoerak:

- a) Liburutegian liburua aldatu behar duzu eta irakasleari baimena eskatu behar diozu.

ADITZA: **Joan**

IZENA: **Izenburua**

EGITURA: **Bai, noski/ ezta pentsatu ere!**

ADIBIDEA:

-Liburutegira "Txanogorritxo" izenburua duen liburua aldatzera joan naiteke?

- Bai, noski. Liburutegira joan zaitezke.

- b) Gaur jangelan geratuko zara bazkaltzen eta Natirengana izena ematera joateko baimena eskatu behar duzu.

ADITZA: **Jeitsi**

IZENA: **Arduraduna**

EGITURA: **Bai, horixe /Ezinezkoa da**

ADIBIDEA:

-Nati, jangelako arduradunarengana jeitsi naiteke izena ematera?

- Bai, horixe. Jeitsi zaitezke.

- c) Parkean lagunekin gelditzeko aitari baimena eskatu behar diozu.

ADITZA: **Geratu**

IZENA: **Latxartegiko parkea.**

EGITURA: **Arazorik ez**

ADIBIDEA:

-Aita, Latxartegiko parkean lagunekin jolasten geratu naiteke?

- Bai, arazorik ez. Geratu zaitezke.

- d) Herri kirolak antolatu dira pilotalekuan. Bertan lagunekin elkartzeko baimena eskatu behar duzu.

ADITZA: **Elkartu**

IZENA: **Pilotalekua, jolasa**

EGITURA: **Bai, noski.**

ADIBIDEA:

-Ama, pilotalekuan herri kirolak daude eta lagunak bertan daude. Beraiekin elkartu naiteke?

- Bai, noski. Elkartu zaitezke.

	<p>e) Ostiral gauean lehengusua zure etxera lo egitera etortzeko baimena eskatu behar duzu.  <b>ADITZA: Etorri</b>  <b>IZENA: Lehengusua</b>  <b>EGITURA: Bai, horixe /Ezta pentsatu ere</b>  <b>ADIBIDEA:</b>          -Ama, ostiral gauean Miren lehengusina gure etxera lo egitera etor daiteke?          - Bai, horixe. Etor daiteke.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoera hauek hasieran singularrean landuko dira, eta ondoren pluralean.</li> <li>- Baiezkoak eta ezezkoak tartekatuz landuko dira.</li> <li>- Lehenengo eta bigarren pertsona finkatuta daudenean, 3. pertsonaren lanketari helduko diogu (Lagun mutua: Ikasle batek mutuaren papera hartuko du eta beste ikasle batek bere izenean hitz egingo du goiko adibideak erabiliz)</li> <li>- Ikusleek behatuko dute ikasitakoaren erabileraren egokitasuna prestatu den txantiloian. <i>ERANSKIN 1</i></li> </ul> <p><b>3. Egoerak asmatu ikasitakoa praktikan jartzeko</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde txikietan egoerak asmatu eta antzestu.</li> <li>- Ikusleek behatuko dute ikasitakoaren erabileraren egokitasuna prestatu den txantiloian. <i>ERANSKIN 1</i></li> </ul>
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Gela Talde txikitan, talde handitan, bikoteka
<b>Denboralizazioa</b>	2. Hiruhilekoa, egunero 8 minutu.
<b>Euskarriak (arbela, orria, jostailua, marrazkia...)</b>	Hirugarren pausoan, beraiek egoerak asmatzerakoan, interesgarria izan daiteke objektu fisikoak ere gehitzea motibazioa areagotzeko. Esaterako, bakoitzak etxetik objektu bat ekar dezake, bere egoerarekin lotuta dagoena, eta antzezterakoan erabiliko duena. -Horma-irudiak
<b>Ereduak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleak</li> <li>- Zuzen esaten duen ikasleak</li> </ul>
<b>Errefortzuak, zuzenketak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Esaldi zuzena bueltatuko zaie. (<i>Kasu honetan, landutakoa soilik zuzenduko dugu, edota hor jarriko dugu fokua batez ere. Esaterako, "naiteke ez joan" / joan ahal naiz / ... zuzenduko ditugu</i>)</li> </ul>
<b>Hizkuntzaren gaineko gogoeta</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleak eredu egokia errepikatuko du.</li> <li>- Haurrari eredu egokia errepikaraziko zaio.</li> <li>- Beste haur bati eredu egokia galdetuz.</li> </ul>
<b>Denboralizazioa</b>	Egunero hamar minutu sakonki 2. hiruhilabetearen zehar.

**ERRUTINA: BAIMENAK (EKINTZAK)**

<p><b>Gaia</b></p>	<p><b>Baimenak</b> Ekintzak: margotu, irakurri...</p>
<p><b>Helburu linguistikoa</b></p>	<p><b>Esaldiak ekoiztea</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ... dezaket- ... ditzaket- ... dezakegu - ... ditzakegu- ... dezake- ... ditzake</li> <li>2. Ahalerako formak aditz ezberdinekin erabili: apaindu, margotu, moztu, irakurri, ekarri, eraman, idatzi, gorde, jaso, itzuli, erosi, ordaindu ...</li> <li>3. Ezezko formak: ezin dezaket/ ezin dezakezue, ezin ditzaket, ezin ditzakezue ...</li> <li>4. Hiztegia: hamaiketakoa, soka saltoa, jostailua, kromoa, eskulana, eraikuntza, ziba, papera, goraizak, oihala, artilea, barazki purea, dilistak, babarrunak, xerra, hanburgesak, oilaskoa, solomoa, telebistako mandoa, dirua, txanpona, biletea, itsulapikoa, ... piezatako puzzlea...</li> <li>5. Esapideak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxetik ekarri dudana objektua .... da /Nik aukeratu dudana ..... da</li> <li>- Eta honekin ..... egin dezaket</li> </ul> </li> </ol> <p>IRAKASLEAK (Baiezkoa) - Beraz, zer esan du ..... egin dezakeela objektu horrekin? TALDEAK - ..... (esaldi osoa) IRAKASLEAK (Ezezkoa) – Eta ..... egin dezake? TALDEAK - ..... (ezezko esaldi osoa) Konpletiba: <i>-ela</i> perpausak</p>
<p><b>Konplexutasunaren garapena</b></p>	<p><b>1.- Motibazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baimenatorri (Baimeneitorri) honako baimenak eskatu lanketarik egin gabe: <ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Marrazki bat errotulagailuz margotzeko.</li> <li>2.- Hamaiketakoa jateko.</li> <li>3.- Liburutegian zaude eta liburu bat hartzeko.</li> <li>4.- Etxetik ekarritako zerbait erakusteko.</li> <li>5.- Soka-saltoan jolasteko.</li> </ol> </li> <li>- Talde txikietan idatzi erabiltzen dituzten era ezberdin guztiak. Denon artean zuzenak direnak aukeratu eta landu. Hauek izango dira landuko direnak: ... dezaket- ... ditzaket- ... dezakegu - ... ditzakegu- ... dezake- ... ditzake</li> <li>- Jolasa: Etxetik zerbait ekarri eta horrekin zer egin dezaket azaldu. Asteazkenean zehar landuko da egunero 8-10 minututan taldeka.</li> </ul>

- EGITURAK:

**Aurkezpena:**

- Etxetik ekarri dudan objektua .... da
- Nik aukeratu dudana ..... da

**Zer egin dezaket honekin:**

- ... eta honekin ..... egin dezaket

**Bukaera:**

- Beraz, zer esan du ..... egin dezakeela objektu horrekin?  
-...-ela

ADIBIDEA:

Etxetik ekarri dudan objektua hartza da, eta honekin lo egin dezaket.

- Gelan kartulina bat zintzilikatu erabili behar diren forma zuzenak azpimarratuz.

**4. Egoerak emanda ikasitakoa finkatu**

- Egoera emanda, talde txikietan antzestu. Partaide bakoitzak singularrean ikasitako esaldiak erabiltzeko aukera izango du, eta ondoren, taldeka pluralean.
- Emango diren egoerak:
  - a) Ormirudi bat egiteko paperak mozteko baimena eskatu(**Moztu**)
  - b) Gaur jangelan geratu zara bazkaltzen eta barazki purea oso goxoa zegoenez, errepikatzeko baimena eskatu.(**Errepikatu**)
  - c) Telebista ikusten ari zara eta kanala aldatzeko baimena eskatu.(**Aldatu**)
  - d) Kromoak erosteko baimena eskatu ( **Erosi**)
  - e) Gelako lanak bukatu dituzu eta puzzle bat egiteko baimena eskatu (**Egin**)
- Egun batean baiezkoak landuko dira eta hurrengo egunean ezezkoak.
- Ikusleek ebaluatuko dute ikasitakoaren erabileraren egokitasuna prestatu den txantiloia. *ERANSKIN 1*

**f) Egoerak asmatu ikasitakoa praktikan jartzeko**

- Talde txikietan egoerak asmatu eta antzestu.
- Lehenengo eta bigarren pertsona finkatuta daudenean, 3. Pertsonaren lanketari helduko diogu (Lagun mutua: Ikasle batek mutuaren papera hartuko du eta beste ikasle batek bere izenean hitz egingo du goiko adibideak erabiliz).
- Ikusleek ebaluatuko dute ikasitakoaren erabileraren egokitasuna prestatu den txantiloia. *ERANSKIN 1*

<b>Espazioaren antolaketa</b>	Gela Talde txikitan, talde handitan
<b>Euskarriak (arbela, orria, jostailua, marrazkia...)</b>	-Etxetik ekarritako objektua -Horma-irudiak
<b>Ereduak</b>	- Irakasleak - Zuzen esaten duen ikasleak
<b>Errefortzuak, zuzenketak</b>	- Esaldi zuzena bueltatuko zaie. <i>Kasu honetan, landutakoa soilik zuzenduko dugu, edota hor jarriko dugu fokua batez ere. Esaterako, "dezaket ez joan" / egin ahal dut / ... zuzenduko ditugu.</i>
<b>Hizkuntzaren gaineko gogoeta</b>	- Irakasleak eredu egokia errepikatuko du. - Haurrari eredu egokia errepikatu araziko zaio. - Beste haur bati eredu egokia galdetuz.
<b>Denboralizazioa</b>	Egunero hamar minutu sakonki 2. hiruhilabetearen zehar.

Gure ustez hiruhilabete batekin nahikoa izango da. Praktikan jartzen dugunean ikusiko dugu nola doan eta ondorioak aterako ditugu.